

## **Mantal urdinaren bihotza golkoan**

[*Bihotza golkoan*, 1990]

Amaia Iturbide

*Euskaldunon Egunkaria*, 1996-07-20: 29.

Martin Ugalde ez genuela merezi bezala aintzat hartu eta injustoki baztertu samarturik zegoela gatzigatu zigun behin Anjel Lertxundik. Joxe Miel Barandiaranekin sentimenduarekiko begirunea zer zen ikasteko aukera izan genuen. Bi esaldiok lotu nahirik eta Martin Ugaldereen lana erreskatatu beharrean aurkitzen garelara adieraztearekin batera, idazle izateaz gain kazetari eta historiagile ere baden aldetik sentimenduak lekukotasunaz erredaktatzen irakatsi digula aitortu behar da, objetibotasunaren eta subjektibotasunaren arteko zubi zailean orekan ihardunez, harako *Mantal urdina* hartan bezalaxe, *Bihotza golkoan* (Erein, 1990) ipuin-bilduma honetan ere.

Bederatzi ipuinok irakurgai ulergarri eta atsegingarriak dira, hizkera doi baina literarioz, gertakari eguneroko baina poetikoz, ikuspegiak eta hizkuntza balantza berean haztatuz. Errealitateak bezala, hitzak bere pisua eta esanahia daramatza itxaropeneranzko bidaia batean, berun eguzkitsuaren baitan. Irakurketan zehar deskripzio barnebilduen kariaz detailematzek errealitatearen bestekaldea ehotzen dute, sinbolo-mailara iristeraino, arrosa kolorekoa ez den errealitatea inoiz ahazteke. Kontatutakoa berez gogorra izanagatik ere, idazkeran ez da aparteko bat-batekotasun zizkolatsurik nabari, dena baitago oihal baten ikutuan emana, tentsio eta irakurketa zoritu baten inarrosian. Sentimendua baita tenple eta giro, besteen bizitzak ulertu ahal izateko jarrera, munduan egoteko modua. Errealitatea sentimenduz deskribitu eta arakatu egiten du, Martin Ugaldereen literatura bizitzan buzeatzea baita eta urpeko ganduez lantzea, bizitzan gertatutakoa magiaren ardatzetik sustraietaraino lotzea.

Protagonistak herriko pertsonaia apal-arruntak izaten dira, Martin Ugaldereen luma hitzunaren bidez biziki argazkituak eta haragituak, eta gaiak pertsonaia-mota hauei dagozkie: zahartzaroaren gora-beherak, herriko hipokresiak eta elkarrekiko herrak eta ezinikusiak, ametsak, bakardadea, gerra-pasadizoak...

Herrikoitasuna eta etxekoitasuna eskuz esku.

Egile beraren bi lanok erkatzerakoan, ordea, *Mantal urdina*-rekin geldituko nintzateke, errota-irin finagoa baita. Han antzeman genuen zer den mindura prosan, nola adieraz zitekeen hitz-lauz hitz horren esanahia (poesian Juan Mari Lekuonak irakatsi zigun bezala).

Martin Ugaldereen ipuinok ahaztuak ezin izan. Martin Ugalderekin zordun gaude, bere lanak urrats zehatzak baitira.